



RASSF-AREN ALERTAK ETA
JAKINARAZPENAK
2009ko 1. LAUHILEKOA


elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

2009ko 1. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) elikagaien 1133 alerta eta jakinarazpen berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Identifikatutako arriskuak	Zenbatekoak
Mikotoxinak / biotoxinak	% 24
Kutsadura kimikoa	% 17,5
Kutsadura biologikoa	% 17
Metal astunak	% 7,5
Hondakinak	% 8
Migrazioak	% 6
Kutsadura fisikoa	% 4
Iruzurrak	% 10
Produktua gaizki kontrolatuta	% 6



Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 91an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % 34,5 eragin du. Bestalde, kasu askotan (% 27,5) kakahuetea **Txinatik** zetorren. Bigarren produktu garrantzitsua **pistatxoa** izan da, aflatoxinek eragindako kutsaduren %21, eta kasuen % 35an jatorria Iran izan da.


Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren % 47,5 eragin ditu. Kasuen % 10a **Salmonella typhimurium** espezieak eragin du, eta ez dago produkturik besteen gainetik nabaria dena. Taldeko protagonista **Salmonella sp.** izan da (kasuen % 89). Alerta gehien eragin dituztenak (% 34,5) **oilategiko-**

hegaztiak izan dira, ia denak europarrak izanik (% 86) eta hauen atzean belar aromatikoak agertzen dira, %20an eta Asiako jatorrikoak %81ean.

Kutsadura kimikoari dagokionez, Nitrofuranoak dira eragile nagusi (kasuen % 35). Inplikaturako produktua ganbak %97an, kasu gehienak (%64,5) Bangladesh izanik jatorria, bigarren postuan Indian %34arekin dagoelarik.

Mikotoxinak/Biotoxinak	270	Aflatoxinak	245(91%)	kakahueteak	84(34,5%)	Txina	23(27,5%)
				pistatxoak	51(21%)	Iran	18 (35%)
Kutsadura biologikoa	192	Salmonella sp.	91(47,5%)	oilaskoa	1 (100%)	Alemania	1 (100%)
		<i>S.enteritidis</i>	1 (1%)	ez dago produktu nabariagorik besteak baino		Europa	24 (86%)
		<i>S.typhimurium</i>	9 (10%)	oilategiko hegaztiak	28(34,5%)	Asia	13 (81%)
		<i>Salmonella sp.</i>	81 (89%)	belar aromatikoak	16(20%)		
Kutsadura kimikoa	198	Nitrofuranoak	69 (35%)	ganbak	67 (97%)	Bangladesh	42(64,5%)
			29				
Metal astunak	84	Merkurioa	(34,5%)	ezpatarraina	11 (38%)	Europa	6 (54,5%)

Kutsaturako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:



Asiari dagokionez, kutsatzaileen % 28,5 Txinakoak dira, jarraian Turkia dugu: kasuen % 20. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortzen duten herrialdeak Alemania kasuen % 18,5 eta Frantzia % 14,5 dira. Azkenik, Amerikaren kasuan AEB dira nabarmen jakinarazpen gehien sortzen dutenak (% 49a).